

ASIER SERRANO
ABESLARIA

“Idazle edo musikaria baino istoriogilea naizela konturatzen hasi naiz”

'Hoteleko kantuak' Asier Serrano (Eibar, 1975) olerkari eta abeslariaren hirugarren bakarkako diskoa da. "Lan gogorra" dela aitortzen du eta "asko sufritu" duela. Hala ere pozik gelditu da emaitzarekin. Maitasuna eta bakartasunari buruz mintzo da lan berri honetan

IBAI FERNANDEZ
IRUÑEA. Zergatik 'Hoteleko kantuak'?

Orain dela lau urte *Hoteleko kantuak* izeneko ipuin liburua kalera-
tu nuen. Hotel imaginario batean
gertatutako istorioz eginiko liburu
bat zen. Eta uste dut diska bera liburu
hartako ipuin bat ere izan
litekeela. Intentzioarekin jokatu du.
Batetik maitasunaren inguruko
disko bat egin nahi nuen, maitasun
ireki baten inguruan. Maitasun
ezberdinak landu nahi dituen, eta
horretarako, aitzaki moduan, istorio
bat egituratu nuen. Hiri ezezagun
batera heltzen den gizaseme
baten istorioa, hotelaren bakartasun-
ean, gauean, bere bizitza erre-
pasatzen duena. Hori zen diskaren
aitzakia. Baina nostalgia, melankolia
eta literaturaren inguruko hausnarketa
bat ere bada. Eta hotel bateko gelek
urruntasunaren ikuspegia ematen dute.

Hari literario horrek noraino baldintzatzen ditu kantuak?

Kantuek badaukate lotura bat, baina
abesti solteak dira. Niretzat interesantea
zen diskoari kontzeptualtasun bat ematea,
baina ez dut uste entzuleari gehiegi axolako
zaionik. Istorioa bera begiratzea baino,
nahiago dut jendeak abesti solteekin
disfrutatzea, edo sufritzea. Giroarekin
jokatu dugu disko honetan.

Eta giro horretan bakartasunak paper nagusi bat dauka.



Asier Serrano pozik gelditu da 'Hoteleko kantuak' diskoarekin. ARGAZKIA: D.N.

Disko guztietan zerbaiten bila noa. Ikasketa prozesu baterako bideak baino ez dira, eta erantzunak bilatzen ditut. Nolabait, modu terapeutiko batean erabiltzen ditut diskoak. *Ez esan inori*, bakarkako lehen diska egiterako orduan, arrazoizko pertsonalengatik edo, lan inti-

mista, egoista, atera zitzaidan. Bigarren indarrez beteta nengoen eta nahiko disko probokatzailera atera zitzaidan *Gerrari bai*. Baina honetan ezereen bila ez nintzen abiatu, eta horrek beste ikuspegi bat eman didala uste dut. Diskak berak sortu dit bakardade sentsazio hori.

Konposatzen eta grabatzen nioan heinean bahitu egin nauela uste dut, berak gidatu nau bakardade horretara. Maila pertsonalean asko eragin didan lana izan da.

Gogorra izan da diskoa egitea?

Ni ez naiz estudioko musikaria, eta horiek esperientzia luze eta nekagarriak dira. Kasu honetan, presio hori gaintzeko gure estudio pertsonala sortu dugu eta bertan grabatu eta nahastu dugu dena. Horrek askatasuna ematen dizu, baina aldi berean nahi dituzun konponketak egiteko aukera ere. Urtarrila eta urria bitarte izan ginen moldaketak egiten eta, egia esan, sufritu egin dugu diskoa grabatzen. Baina ez dago ikasbiderik sufritzen ez bada eta pasatako sufrimenduak balio izan dutela esateko moduan nago orain.

Ezberdinak dira liburu baterako edo disko baterako egiten diren olerkiak?

500 idatziak ditut, eta argitaratuak 200 bat abesti, niretzat eta enkarguz eginak. Eta orain hasi naiz konturatzen zein ideiak balio duen poema baterako edo ipuin baterako, eta zeinek kanta baterako. Atzealdean badira diferentziak. Nire burua orain arte musikari edo idazle moduan ikusi badut, orain hasi naiz konturatzen istoriogile naizela, eta istoriogile moduan badakidala ezberdintzen zein istorio doazen gitarrarekin eta zein paperean.

Planteamendu ezberdina behar da formatu bat edo bestea aukeratzeko?

Nire buruari kalte egingo nioke ideia hau edo sentimendu hau nola plazaratu galdetuko banio. Norberaren teiltuan harriak botatzea da hori. Zerbait atera behar bada, aterako da. Azken finean, nire kantu edo poemak haur jaio berriak bezalakoak dira. Sufrimenduz jaiotzen dira, baina beti era natural batean, behartu gabe. Nahiko meritu daukate poema edo kantuek jaiotzearekin, beren sexuaz ohartzeko.

JIMENO JURIOREN HIRUGARREN LANA PLAZARATU DU PAMIELAK

Historialari nafarra obra osoa kaleratzen duen lehenengo autorea da

IRUÑEA. Jose Maria Jimeno Jurio historialari artaxoarra Iruñean zendu zen 2002an. 1999an Jimeno Juriok berak proposatu zuen bere obra osoa plazaratzea. Alta, tartean zegoen banketxeak atzera egin zuen eta idazlea bere lanen edizioa ezagutu gabe hil zen. Orain, hiru urte geroago, haren lan guztien argitalpenari ekin dio Pamiela argitaletxeak, Udalbide elkartearen eta Euskara Kultur Elkargoaren laguntzarekin.

Hala izanik, Donostian aurkeztu zuten 62 liburuz osatutako bildumaren hirugarren alea: *Navarra y Gipuzkoa. Historia del euskerre*. Jose Maria Jimeno Jurioren seme Roldan Jimeno Aranguren bere aitaren lan guztia plazan ikustea "ohorea" irizten zitzaiola adierazi zuen. "Estatu guztian ez dago bere obra osorik plazan duen autorerik", azaldu zuen Jimeno Aranguren.

Orain argia ikusiko duten bere aitaren lanen artean argitaragabeko testuak daudela azaldu zuen historialari gazteak. Eta horien artean Espainiako Bigarren Errepublikako politikarien inguruan Manuel Irujori jarritako galdetegi azpimarratu zuen. Izan ere, kaleratuko den Jose Maria Jimeno Jurioren lanaren %20 argitaragabeko materialez osatuta baitago.

EUSKARA Oñatiko izeba moja bati egiten zizkion bisitei esker ikasi omen zuen Jimeno Juriok, gazetxo bat besterik ez zela, euskara murduskatzen. Urteak aurrera egin ahala, Jose Migel Barandiaranekin harremanak hasi zituen eta baita ikerkuntza lanak ere. Beranduago, eta Euskal Fundazioaren izenean, Juan Zelaia eta Joseba Intxausti berarekin harremanetan jarri ziren Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko lotura estutu nahian. >TERESA SALA

KRITIKA > LITERATURA

Gizatasuna, sen eta patu

AZKEN GUTUNA ETA BESTE

Izenburua: Azken gutuna eta beste. Jatorrizko izenburua: La dernière lettre. Egilea: Vassili Grossman. Itzultzailea: Felipe Juaristi. Argitaratze urtea: 2005. Argitaletxea: Erein

INMA ERREA

ZERK definitzen ditu gizon-emakumeak? Zertan bereizi pertsonak gainerako animalietatik? Garai batean diferentzia arrazionaltasunean datzala esaten zen. Baina, zer gertatzen da pertsonen arrazionaltasunaren izenean, izaki adimengabeek inolaz ere egingo ez lituzketen izugarrikeriak egiten dituztenean?

Vassili Grossmanek horretaz jardun zuen *Bizia eta patua* bere liburu inportanteenean. Horretaz ari da Felipe Juaristik itzulitako liburu

ru honetan, non *Bizia eta patuan* bertan argitaratu emandako bi kontakizun *-Azken gutuna* eta *Ikonnikoven gutuna* biltzen baititu, beste inongo liburutan jaso gabea den *Ama Birjina Sixtotarra* izenburukoarekin batera.

Hiru kontakizun, eta gai bat eta bera, modu diferentetan jorratuta. *Azken gutuna* bihotzaren mindura abiapuntu harturik idatzitako kontakia da, naziek hil behar duten ama judu batek semeari idazten dion azken gutunarena, alegia. Grossmanek ez zuen zertan behartu izan haren irudimena, ipuin hori idazteko, ama judua baitzuen, eta naziek hil baitzuten. Kontakizun horretan irakurlea harritzen duena, ordea, ez da hainbeste alditan entzun ditugun gertaera tristen deskribapen negartia, azken gutun hori ez baita negar eta

aieruetan oinarritzen, baizik eta muturreko egoeretan gizon-emakumeon portaeren azterketa zorrotzean. Ez da, ezta ere, juduen aldeko aldarria, Grossmanek ez baititu pertsonaiak heroi edo zital gisara aurkezten, biktima edo borroko, eta biktimen gorazarrea ere ez du egiten. Finean, gizatasunaren berri baino ez digu ematen Grossmanek.

Ikonnikoven gutuna kontraerak, ordea, nolabaiteko jarraipena ematen dio aurrekoari. *Azken gutuna* kontakizunean hiltzera doan emakume baten gogoetak erakusten dizkigu egileak, eta beste honetan, berriz, kontakizuna bera da gogoa, eta aldarria. Ontasunari buruzko ideia sakon eta ezohikoak azalduta, pertsonen senaren aldeko aldarria da, baina aldarri lurtarra, errotikoa, Grossmanen iritzi giza-

tasuna ez baitatza ideologiek edo erlijioek proposatutako jokamolde eta sentimendu zintzoetan, baizik eta gizon eta emakumeen sen kasik aldagaitzean, egoera okerrenetan ere haien kideenganako keinu lagunkoi ñimiño bat pizteko gauza den horretan, alegia.

Ama Birjina Sixtotarra artelan baten azterketa da, baina ez azterketa plastiko hutsa; ez, ariketa estetiko soila. Hor ere Grossmanen kezka gizon-emakumeak baitira, pertsonak. Vassili Grossmanek emakume eta gizonen historia

Giza-krudeltasunaren kontakizuna da, eta, aldi berean, pertsonenganako esperantzarena ere bai

ikusten du Rafaelen koadro batean, non Ama Birjina eta Jesus haurra azaltzen baitira. Haien irudietan idazleak laburbilduta ikusten ditu mundu honen historian barna pertsonak orok, gizon-emakume helduek, zaharrek zein haurrek orok, alegia, jorratutako ibilbideak, pairatutako sufrimendu eta nekeak, bai eta bizitzeko bozkario garaiezina ere.

Oro har esan daiteke Vassili Grossmanena giza-krudeltasunaren kontakizuna dela, eta, aldi berean, pertsonenganako erabateko esperantzarena ere bai.

Felipe Juaristik, hiru kontaketa hauek itzultzeaz gain, Grossmani buruzko erreferentziak ere jaso ditu liburu honetan, eta hori bereziki eskertzekoa da, argia ematen baitie kontakizunei, haien testuinguru egoki zedarrizten duelako.